



## ATZERRITAR BIZTANLERIA EAEn, 2013

Begirada honen bidez, 2012ko abuztuko 46. begiradaren edukia eguneratuko dugu; orduko hark 2012ko urtarrilaren 1ean EAEn errolatutako atzerritarren kopurua jasotzen zuen. Horretarako, 2013ko urtarrilaren 1ean EAEn errolatutako biztanleria aztertu dugu, Estatistika Institutu Nazionalak (EIN) aurreratutako behin-behineko datuak hartuta.

Aurten, aurrenekoz, EAEn behera egin du etorkinen kopuruak, batez ere krisi ekonomikoaren ondorioz. Jaitsiera nabarmena latinoamerikarren artean nabaritu da, hala nola Kolonbia, Ekuador eta Brasileko etorkinengan, eta marokoarrek, aldiz, berretsi eta sendotu egin dute, bigarren urtez jarraian, lehenengo nazionalitate gisa duten lekua.

### 1. Biztanleen udal-errola. Ikuspegi orokorra

1. taula. Atzerritar biztanleria EAEn, sexuaren eta lurralde historikoen arabera. 2012-2013

2012. urtea	Guztira		Gizonak		Emakumeak		Urtetik urterako hazkundera
	K		K	%	K	%	
Espainia	5.736.258		2.975.508	51,9	2.760.750	48,1	-0,3
EAE	151.894		78.148	51,4	73.746	48,6	4,6
Araba	30.228		16.661	55,1	13.567	44,9	4,9
Gipuzkoa	46.132		23.323	50,6	22.809	49,4	4,4
Bizkaia	75.534		38.164	50,5	37.370	49,5	4,5

2013. urtea	Guztira		Gizonak		Emakumeak		Urtetik urterako hazkundera
	K		K	%	K	%	
Espainia	5.520.133		2.842.913	51,5	2.677.220	48,5	-3,8
EAE	148.165		75.628	51,0	72.537	49,0	-2,5
Araba	28.236		15.290	54,2	12.946	45,8	-6,6
Gipuzkoa	46.549		23.556	50,6	22.993	49,4	0,9
Bizkaia	73.380		36.782	50,1	36.598	49,9	-2,9

Iturria: Egileek egina, EINen datuetan oinarrituta


2013ko urtarrilaren 1eko behin-behineko datuek adierazten dute 148.165 direla EAEn errolatutako atzerritarrek, 2012an baino %2,5 gutxiago. Estatu osoan izandako aldakuntzarekin konparatuta (-%3,8), EAEn jaitsiera apalagoa izan da. EAEn atzerritar biztanleriak behera egiten duen lehen aldia da, azken urteotako hazkunde-ildoan hautsiz.

Lurralde historikoei dagokienez, Bizkaian bizi da atzerritar gehien, zehazki 73.380, 2012an baino %2,9 gutxiago. Haren atzetik doaz Gipuzkoa, errolatutako 46.549 atzerritarrez (%0,9ko hazkundera) eta Araba, 28.236 atzerritarrez (%6,6ko jaitsiera). Beraz, Bizkaian eta batez ere Araban atzerritar biztanleriak behera egiten du eta Gipuzkoan, ordea, gora egiten jarraitzen du, apalago bada ere.

Sexuaren araberako banaketan ere aldeak badira. EAE osoan, gizonezko atzerritarren ehunekoak emakumezkoena baino pixka bat altuagoa da; %51 eta %48,5, hurrenez hurren. Alabaina, azken urteotan nazionalizatu diren atzerritar jatorriko pertsonen erreparatuz gero, pentsa liteke kopuru hori bestelakoa dela, emakumeen pisua gizonena baino handiagoa baita.

Alde hori handiagoa da Araban: gizonezkoak %54,2 dira, eta emakumezkoak %45,8. Bizkaian eta Gipuzkoan, aldiz, proportzioak ia berdina dira. Araban dagoen aldearen arrazoiak afrikarren kopuru handiagotan datza, batez ere magrebtarrena; izan ere, jatorri horretako etorkinen artean gizonezkoen ehunekoak emakumezkoena baino dezente handiagoa da.

1. grafikoa. Atzerritar biztanleriaren urtetik urterako hazkundera EAEn, lurralde historikoetan eta Espainiako zenbait erkidegotan, eta atzerritarren ehunekoa haietan guztietan (%)



Iturria: Egileek egina, EINen datuetan oinarrituta

Zer-nolakoa izan da EAEko bilakaera beste autonomia-erkidegoetakoarekin alderatuta? Galdera horri erantzunez, 1. grafikoa ikus daiteke 2013an EAEk atzerritar biztanleriaren %2,5 galdu duela; kopuru absolututan, EAEn erroldatutako atzerritarren galera 3.729 pertsonakoa izan da.


Egoera gainerako autonomia-erkidegoenarekin alderatuz gero ikusten dugu Euskadi etorkinen jaitziera apalagoa izan den erkidegoetako bat dela; atzetik Kantabria eta Aragoi baino ez daude, %2,2 eta %0,1eko jaitzieraz, hurrenez hurren.

Atzerritarren ehunekoari dagokionez, etorkinen pisua desberdina da lurralde historikoaren arabera. Araban %8,8 dira, Bizkaian eta Gipuzkoan baino bi puntu gehiago (%6,4 eta %6,5, hurrenez hurren). 2013ko egoerak 2001etik honako idio orokorra berresten du: Araban atzerritarren ehunekoa

EAEkoa nahiz Bizkai eta Gipuzkoakoa baino altuagoa da, eta bi herrialde horiek, ostera, EAEkoaren antzeko ehunekoa izan ohi dute, baina beti apalagoa.

Beste alderdi garrantzitsu bat da ezagutzea immigrazioak dinamika demografikoan izan duen eragina. 2. taulak erakusten du eragina positiboa izan dela. 2013. urtean, 1998an baino 91.094 biztanle gehiago bizi da EAEn. Hazkunde horren arrazoi nagusia atzerritar biztanleriaren gorakada da; hain zuzen ere, 1998an 15.198 atzerritar zeuden erroldatuta, eta 2013n, berriz, 148.165. Aldiz, epe horretan berean, bertako biztanleriak 41.365 pertsonako beharakada izan du, nahiz eta badirudien azken bi urteetan multzo horrek goranzko joera duela. Dena den, horren arrazoietako bat atzerritar biztanleriaren nazionalizazio-prozesua izan daiteke.

2. grafikoa. Atzerritar biztanleriaren ehunekoaren bilakaera EAEn eta lurralde historikoetan. 1998-2013



Iturria: Egileek egina, EINen datuetan oinarrituta

2. taula. Bertako eta atzerritar biztanleriaren bilakaera, eta EAEko eta Espainiako atzerritarren ehunekoak. 1998-2013

	Biztanleria				Atzerritarren tasa	
	EAE	Bertakoa	Atzerritarra	Hazkundera	EAE	Espainia
1998	2.098.628	2.083.430	15.198		0,7	1,6
1999	2.100.441	2.083.648	16.794	1.596	0,8	1,9
2000	2.098.596	2.077.456	21.140	4.346	1,0	2,3
2001	2.101.478	2.074.040	27.438	6.298	1,3	3,3
2002	2.108.281	2.069.873	38.408	10.970	1,8	4,7
2003	2.112.204	2.062.973	49.231	10.823	2,3	6,2
2004	2.115.279	2.056.113	59.166	9.935	2,8	7,0
2005	2.124.846	2.051.952	72.894	13.728	3,4	8,5
2006	2.133.684	2.048.142	85.542	12.648	4,0	9,2
2007	2.141.860	2.043.336	98.524	12.982	4,6	9,9
2008	2.157.112	2.039.775	117.337	18.813	5,4	11,4
2009	2.172.175	2.039.310	132.865	15.528	6,1	12,1
2010	2.178.339	2.038.970	139.369	6.504	6,4	12,2
2011	2.184.606	2.039.350	145.256	5.887	6,6	12,2
2012	2.193.093	2.041.199	151.894	6.638	6,9	12,1
2013	2.190.230	2.042.065	148.165	-3.729	6,8	11,7
1998-2013	91.602	-41.365	132.967	132.967	6,1	10,1


Iturria: Egileek egina, EInen datuetan oinarrituta

Beraz, immigrazioari esker, biztanleria galtzeko dinamika hautsi da EAEn. Demografia-egituran izandako eragin positibo hori argi eta garbi antzeman daiteke atzerritar biztanleriak duen pisuaren gorakadan: 1998an, %0,7 zen, eta 2013an, %6,8 da. Hala ere, gorakada hori Estatukoa baino txikiagoa izan da, urte horietan: %1,6 zena %11,7 baita orain Estatuan.

Migrazio-hazkundera ez da beti modu homogeneoan gertatu. 3. grafikoak erakusten du fenomenoaren bilakaera, eta horretan bostaldi bereiz daitezke:

- **Hastapenak (1998-2000):** aldi horretan atzerriko immigrazioa gero eta errealitate garrantzitsuagoa bihurtu zen. Hazkundera areagotzen hasi zen, eta 1998tik 2000ra, atzerritarrek 1.600 inguru izatetik 6.300 inguru izatera iritsi ziren.
- **Finkatzea (2001-2003):** aldi horretan, urteko hazkundera errolatutako 10.000 atzerritar berri ingurukoa zen. Migrazio-fenomenoa finkatu egin zen EAEn, eta garrantzitsua bihurtu zen.
- **Areagotzea (2004-2008):** bost urte horietan gertatu zen migrazio-hazkundera handiena. Hazkundera-erritmoa, gelditu beharrean, bizkortu egin zen; 2007an izan zen errolatze berrien tasa handiena, 18.813 errolatze berri, hain zuzen.
- **Krisiaren eragina (2009-2012):** krisi ekonomikoa asko nabaritu zen, eta hazkundera-erritmoa nabarmen jaitsi zen. Hala ere, immigrazioak gora egiten jarraitu zuen eta migrazio-fenomenoaren aldia hasi zeneko maila ber-

3. grafikoak. Atzerritarren urtetik urterako hazkundera absolutua EAEn (1998-2013)



Iturria: Egileek egina, EInen datuetan oinarrituta


bera hartu zuen; hau da, 5.000 errolatze berri baino gehiago.

- **Krisiaren ondorioak finkatzea (2013):** aurten, lehenengo aldiz, etorkinen kopurua jaitsi egin da; zehazki, 3.729 etorkin gutxiago dago, EAEko gutxitzearekiko %2,5eko jaitsiera.

Azken finean, 3. grafikoan ikus daitekeenez, bi fase handi izan dira. Lehenengoa, ekonomiaren hazkunderari lotua, atzerritar biztanleria etengabe eta nabarmen hazi zenekoa; eta bigarrena, krisi ekonomikoi lotua, kolektibo horren hazkundera eragotzen ari denekoa, 2013. urtean gutxitzeraino.

## 2. Nazionalitate-taldeak

4. grafikoa. EAEko atzerritar biztanleriaren osaera, nazionalitate-eremuen arabera. 2003-2013



Iturria: Egileek egina, EInen datuetan oinarrituta

Etorkinen jatorrizko herrialdearen eta nazionalitatearen arabera bilakaeraren analisiak bi gauza erakusten ditu: bate-tik, EAEn iristen diren migrazio-fluxuen aniztasuna, eta, bestetik, atzerritar biztanleriaren osaeran jatorrizko nazionalitate-eremuek duten pisua.

4. grafikoa (ehunekotan) eta 3. taulak (kopuru absolututan) erakusten dituzte EAEko etorkinen osaeran gertatutako aldaketak, eta joera argi bat antzematen da: Latinoamerika da immigrante gehieneko jatorria, eta ondoren Europar Batasuna eta Magreb.

2003. urtetik izandako bilakaerak erakusten du migrazio-fluxuen jatorria aldakorra izan dela:

- 2003-2004 aldian, latinoamerikarren migrazio-hazkundera nabarmena izan zen; izan ere, atzerritar guztien ia erdia ziren (%48,4), eta tasa hori 2007ra arte mantendu zen.
- 2006tik aurrera, gainerako Europako biztanleriaren migrazio-hazkundera hasi zen, batez ere errumaniarra. 2007an Errumania Europar Batasuneko kide bihurtzearen ondorioz, nazionalitate horren pisua erroldatutako atzerritar guztien %27,3ra iritsi zen.
- 2009tik aurrera, magrebtarrak –batez ere marokoarrak– izan dira hazkunderaren protagonistak: 2007an %11,8 ziren, eta 2013an %16,8 dira.

3. taula. Atzerritar biztanleriaren bilakaera EAEn, geografia-eremuen arabera. 2003-2013

	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013
EB 25	11.001	11.192	12.527	14.294	14.294	18.211	19.461	19.475	18.701	18.702	18.223
EB 27	0	0	0	0	9.484	13.772	15.652	16.280	17.277	18.750	18.475
EB guztira	11.001	11.192	12.527	14.294	25.517	31.983	35.113	35.755	35.978	37.452	36.698
Gainerako Europa	3.180	4.852	7.044	9.439	2.824	3.431	3.839	4.102	4.381	4.601	4.603
Europa guztira	14.181	16.044	19.571	23.733	28.341	35.414	38.952	39.857	40.359	42.053	41.301
Magreb	5.961	7.441	8.877	10.292	11.623	13.932	17.345	20.002	22.208	24.840	24.917
Gainerako Afrika	3.032	2.961	4.504	4.673	5.199	6.371	7.950	9.189	10.422	11.771	11.993
Afrika guztira	8.993	11.152	13.381	14.965	16.822	20.303	25.295	29.191	32.630	36.611	36.910
AEB eta Kanada	889	867	956	920	766	816	856	898	943	986	966
Latinoamerika	22.657	28.327	35.054	41.293	47.558	54.865	60.741	61.514	61.688	60.873	57.273
Amerika guztira	23.546	29.104	36.010	42.213	48.324	55.681	61.597	62.412	62.631	61.859	58.239
Txina	1.340	1.558	2.120	2.530	2.810	3.282	3.960	4.338	4.763	5.203	5.252
Gainerako Asia	1.064	1.197	1.560	1.983	2.119	2.549	2.938	3.440	4.735	6.025	6.314
Asia guztira	2.404	2.755	3.680	4.513	4.929	5.831	6.898	7.778	9.498	11.228	11.566
Ozeania	102	105	120	111	93	97	108	105	112	116	119
Herrigabeak	5	6	5	7	15	11	15	26	26	27	30
Guztira	49.231	59.166	72.767	85.542	98.525	117.337	132.865	139.369	145.256	151.894	148.165


Iturria: Egileek egina, EInen datuetan oinarrituta

4. taula. Atzerritar biztanleriaren hazkunde absolutua eta erlatiboa, nazionalitate-eremu geografikoen arabera, 2007tik 2013ra

	2007	2013	Absolutua	Erlatiboa (%)	Banaketa (%)
EB 25	14.294	18.223	3.929	27,5	7,91
EB 27	9.484	18.475	8.991	94,8	18,11
EB guztira	25.517	36.698	11.181	43,8	22,52
Gainerako Europa	2.824	4.603	1.779	63,0	3,58
Europa guztira	28.341	41.301	12.960	45,7	26,11
Magreb	11.623	24.917	13.294	114,4	26,78
Gainerako Afrika	5.199	11.993	6.794	130,7	13,69
Afrika guztira	16.822	36.910	20.088	119,4	40,47
AEB eta Kanada	766	966	200	26,1	0,40
Latinoamerika	47.558	57.273	9.715	20,4	19,57
Amerika guztira	48.324	58.239	9.915	20,5	19,97
Txina	2.810	5.252	2.442	86,9	4,92
Gainerako Asia	2.119	6.314	4.195	198,0	8,45
Asia guztira	4.929	11.566	6.637	134,7	13,37
Ozeania	93	119	26	28,0	0,05
Herrigabeak	15	30	15	100,0	0,03
Guztira	98.525	148.165	49.640	50,4	100,00

Iturria: Egileek egina, EINen datuetan oinarrituta

5. grafikoa. Atzerritar biztanleria EAEn eta lurralde historikoetan, nazionalitate-eremuen arabera. 2013



Iturria: Egileek egina, EINen datuetan oinarrituta

Gainera, 2012az geroztik marokorrek EAEn atzerritarren nazionalitate nagusia dira.

Azpimarratu beharra dago nazionalizazio-prozesuak datu horien estatistika desitxura dezakeela, espainiar nazionalitatea eskuratzen duten biztanleak estatistikatik desagertzen baitira. Era berean, esan beharra dago nazionalizazio-prozesu hori ez dela modu berean gertatzen nazionalitate guztietan, horietako bakoitzari eskatzen zaizkion baldintzak desberdinak baitira. Adibidez: latinoamerikarrek, egoitzaz-eremua eskuratzen dutenetik, bi urte behar dituzte espainiar nazionalitatea lortzeko; aldiz, beste kolektibo batzuek –magrebtarrek, esaterako– hamar urte behar dituzte.

4. taulan laburtzen da azken sei urteetan atzerritar biztanleriaren hazkundeak izan duen bilakaera, jatorrizko geografiamuaren arabera. Ikus daitekeenez, azken sei urteetan afrikarrek izan dute gorakada handiena EAEn; izan ere, hazkunde absolutuari dagokionez, 20.088 afrikar erroldatu dira, hau da, atzerritar berri guztien %40,5. Europarren

kolektiboa dator hurrena (%26), eta ondoren, amerikarrena (%20). Jatorrizko lurraldeei begiratu gero, bigarren urte segidan magrebtarrek dira ugariak (%26,1), besteekiko alde handituz, eta, haien atzetik, latinoamerikarrek (%19,6).

Bestalde, nazionalitate bakoitzak hiru lurralde historikoetan duen pisua desberdina da. Desberdintasun horren arrazoi nagusia lan-merkatua da; izan ere, tokiko lan-merkatuaren ezaugarrien arabera, jatorri bateko edo besteko etorkinek immigratuko dute bertara. Hala, 5. grafikoa ikus daitekeenez, jatorrizko geografiamuaren arabera hiru talde handi daude EAEn: etorkinen %38,7 Latinoamerikatik dator, %24,8 Europar Batasunetik eta %16,8 Magrebetik. Lurralde historikoetan ere aipatutako hiruak dira talde handienak, baina pisu desberdinez: Araban, biztanleria magrebtarrek duen pisua (%28,9) beste bi lurralde historikoetan duena baino handiagoa da; Gipuzkoan, bereziki nabarmena da Europar Batasunetik iritsitako etorkinen presentzia (%30,7); Bizkaian, ordea, latinoamerikarren pisua (%42,7) gainerako lurralde historikoetan dutena baino handiagoa da.

### 3. Nazionalitate nagusiak

Nazionalitatearen arabera, hamar nagusien artean Latinoamerikako bost daude (Kolonia, Bolivia, Ekuador, Brasil eta Paraguai), Europar Batasuneko bi (Errumania eta Portugal), Afrikako bi (Maroko eta Aljeria) eta Asiako bat (Txina).

2012az geroztik, marokoarrena da EAeko atzerritarren artean nazionalitate nagusia, eta 2013an goranzko bidean jarraitzen du: gaur egun 18.120 marokoar daude erroldatuta, atzerritarren guztizkoaren %12,2. Bigarren nazionalitatea Errumania da, atzerriko biztanle guztien %11,7. 5. taulan ikus daitekeenez, hamar nazionalitate nagusiek atzerritar biztanleriaren %61,1 biltzen dute. Datu hori aurreko urteetako datuekin alderatzen badugu, ohartzen gara ehuneko horrek beherantzko joera duela. Horrek esan nahi du nazionalitateen aniztasuna gero eta handiagoa dela eta EAeko atzerritar biztanleriaren osaera dibertsifikatu egin dela.

Bestalde, nazionalitateen sailkapenaren bilakaerak argi eta garbi erakusten du marokoarren hazkunde nabarmena, azken bi urteetan nazionalitate nagusia izaterainokoa. Bilakaerari begira, azpimarratzekoa da, halaber, errumaniar biztanleriaren hazkunde bizkorra: 2002an nazionalitate hori ez zegoen lehenengo hamarren artean, eta gaur egun bigarrena da, 2010ean eta 2011n lehenengoa izan ostean. Bestalde, 2002az geroztik, kolonbiarrak, ekuadortarrak, portugaldarrak, txinatarrak eta brasildarrak hamar nazionalitate ugarienen artean daude.

Oso interesgarria da, inondik ere, 2007tik 2013ra EAeko hamar nazionalitateen bilakaerari erreparatzea. Gorabehera oso esanguratsuak antzematen dira. Maroko %110 hazi da; 2007an, laugarren nazionalitatea zen, Kolonia, Bolivia eta Errumaniaren atzetik, eta orain, nazionalitate nagusia da EAEn. Errumaniar biztanleriak ere hazkunde nabarmena izan du, %99koa.


5. taula. Hamar nazionalitate nagusiak EAEn. 1998, 2001, 2004, 2007, 2010, 2011, 2012 eta 2013

1998		2001		2004		2007	
Guztira	15.130	Guztira	27.438	Guztira	59.166	Guztira	98.524
Portugal	3.227	Portugal	4.031	Kolonia	9.044	Kolonia	11.630
Maroko	1.612	Kolonia	2.845	Ekuador	7.038	Bolivia	9.568
Frantzia	1.121	Maroko	2.720	Maroko	5.505	Errumania	8.715
Alemania	807	Brasil	1.404	Portugal	4.607	Maroko	8.627
Erresuma Batua	782	Frantzia	1.375	Errumania	2.652	Portugal	7.437
Kuba	527	Ekuador	1.219	Argentina	2.329	Ekuador	7.436
AEB	511	Erresuma Batua	1.145	Brasil	2.269	Brasil	4.320
Argentina	493	Alemania	1.013	Aljeria	1.936	Argentina	2.916
Brasil	438	Kuba	984	Frantzia	1.690	Txina	2.810
Txina	422	Txina	900	Txina	1.558	Aljeria	2.532
Guztira 10	9.940	Guztira 10	17.636	Guztira 10	38.628	Guztira 10	65.991
Gainerakoak	5.190	Gainerakoak	13.833	Gainerakoak	20.538	Gainerakoak	32.533
Gainerakoen %	34,3	Gainerakoen %	50,4	Gainerakoen %	34,7	Gainerakoen %	33,0

2010		2011		2012		2013	
Guztira	139.369	Guztira	145.256	Guztira	151.894	Guztira	148.165
Errumania	15.217	Errumania	16.231	Maroko	17.832	Maroko	18.120
Maroko	14.447	Maroko	15.823	Errumania	17.598	Errumania	17.350
Kolonia	12.845	Kolonia	12.166	Bolivia	11.718	Bolivia	11.226
Bolivia	12.048	Bolivia	11.855	Kolonia	11.162	Kolonia	9.701
Portugal	9.350	Portugal	8.676	Portugal	8.426	Portugal	8.011
Ekuador	7.406	Ekuador	6.700	Aljeria	5.965	Aljeria	5.784
Brasil	5.824	Brasil	5.782	Ekuador	5.669	Paraguai	5.406
Aljeria	4.676	Aljeria	5.448	Brasil	5.554	Txina	5.252
Paraguai	4.627	Paraguai	5.173	Paraguai	5.546	Brasil	5.041
Txina	4.338	Txina	4.763	Txina	5.203	Ekuador	4.702
Guztira 10	90.778	Guztira 10	92.617	Guztira 10	94.673	Guztira 10	90.593
Gainerakoak	48.591	Gainerakoak	52.639	Gainerakoak	57.221	Gainerakoak	57.572
Gainerakoen %	34,9	Gainerakoen %	36,2	Gainerakoen %	37,7	Gainerakoen %	38,9

6. grafikoa. EAEko hamar nazionalitate nagusien bilakaera, 2007-2013 (kopuru absolutuak eta erlatiboak)



Iturria: Egileek egina, EINen datuetan oinarrituta

Esanguratsua da, halaber, Aljeriako eta batez ere Paraguaiko herritarren hazkundera. Aljeriarren kopurua %128,3 hazi da 2007tik hona, eta paraguaiarrena %172; 2007an ia 2.000 ziren paraguaiarrak, eta 2013an 5.252 baino gehiago dira.

Hazkunde negatiboei dagokienez, gehien erasandako nazionalitateak Kolonbia –azken sei urteetan %3,5eko jaitsiera– eta Ekuador –%36,8ko jaitsiera– izan dira. Aurten Portugal

ere sartu behar da hazkundera negatiboak izaten ari diren nazionalitateen artean, datuak 2007koekin alderatzen baditugu. Edonola ere, Kolonbia eta Ekuadorreko nazionalitateen kasuan, beste behin kontuan hartu behar da, krisiaz gain, nazionalizazio-prozesuaren eragina. Hamar nazionalitate nagusien artean egon ez arren, nabarmendu nahi dugu Pakistan eta Nikaraguako nazionalitateak EAEn izaten ari diren hazkundera.

Immigrazioaren gaia interesatzen zaizu eta nobedade guztien berri jakin nahi al duzu?

Jarraituz sare-sozialetan hurrengo ikonoen gainean sakatuz:

